

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

AMARA BERRIKO HIRU PLAZEN IRISGARRITASUNAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko uztailaren 10ean Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko maiatzetik Udal Gobernuak, hainbat komunikabidetan, Amara Berriko Merkatar, Etxeberritarren eta Donostiako Kofradien plazetan goitik beherako aldaketak egin behar zituela adierazi du, plazen egoera hobetzeko eta erabilgarriagoak izateko. Dirudienez, 800.000 euro gastatu behar zituzten plazen konponketetan.

Urrian eta azaroan, auzoan egin genituen bisitetan, hainbat kexa jaso genituen bizilagunen aldetik, plazak ez zirelako irisgarriak. Nahiz eta hainbat konponketa egin ziren irisgarritasuna bermatzeko, konpoketa horiek ez ziren nahikoak izan eta, abenduko batzordeetan aurkeztu genituen argazkietan ikus zitekeen bezala, espaloi batzuetara mugatu ziren; hau da, 0 kotatik oso urrun.

Batzordean zinegotzi-ordezkarriak aitortu zuen plazak ez zirela irisgarriak eta kexa ugari jaso zirela bizilagunen eskutik. Alde batetik, adierazi zuen aurrekontua agortzeko beldurra zutela eta 650.000 gastatu zirenez, oraindik ere konpoketa gehiago egiteko aukera zegoela. Bestetik, hirurogei bat interbentzio aztertzen ari zirela azaldu zigun eta Udal Gobernuak hiru plazak 2017rako irisgarriak izatea espero zuela.

Gure taldeak nahasmena ikusi zuen delegatuaren erantzunean, eta irisgarritasuna bermatzeko proiektu baten beharra somatu genuen. Hori zela eta, abenduko udalbatzarrean aho batez onartua izan zen mozio hau aurkeztu genuen:

- 1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Amara Berriko Merkatar, Etxeberritarren eta Donostiako Kofradien plazak irisgarriak izan daitezen, planteamendu zehatz bat egin dezala eta kexak helarazi dituzten eragile zein norbanakoei proiektuaren berri eman diezaiela.*
- 2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Amara Berriko Merkatar, Etxeberritarren eta Donostiako Kofradien plazak irisgarriak izan daitezen, beharrezkoak diren konponketak egin ditzala 2017an, 2016an hasitako konponketei amaiera egokia emanaz.*

Dagoeneko zazpi hilabete pasatu dira eta, oraindik ere ez dira konponketak egin, plazak irisgarriak izateko, eta ez dugu proiektuaren berri izan. Hilabete honetako batzordeetan delegatuak adierazi zigun konpoketak kreditu modifikazio bat egin ondoren hasiko zirela, baina ez zigun ziurtatu plazak 2017rako irisgarriak izango zirela.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari 2016ko abenduko Osoko Bilkuran onartutako kontrol mozioa bete dezala eta irisgarri bihur ditzala, aurren, Amara Berriko Merkataria, Etxeberritarren eta Donostiako Kofradien plazak.

Donostian, 2017ko uztailaren 14an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia